

3. Apaiz-gaien bilguma bat sortu da Gazteizko apaiz-gaien ikastetxean. Izentzat *Kardaberaz* darama. Bilguma oñen zuzendariak idatzi dio Euskaltzaindiari, esanik: Bilguma-araudiz euskal-idazle-batzaldi bat urtero egitea agintzen dala ta auxe betetzeko on litzaio-kela Euskaltzaindiaren sari bat izatea, beronek idaz-gaya aukeraturik.

Erantzun bear zaio: gaya *Kardaberaz* bera izan litekela, bañan oraingoz, Euskaltzaindiak ez diola sari txiki bat baño emango.

4. Lakonbe jaunak irakuri du bere lan egoki ta edera: «Ohienart-en atzotizetan eta neurtizetan hatzemaiten diran aditz azkarak».

5. Berdin ere Kanpion jaunak bere lan sakona: «El vascuence y la lengua ibérica».

6. Azkue jaunak bere *Morfología verbal*.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Epaila' ren 28'an.

Aurako batzaraldian aipatzen diran euskaltzain berak bildu dira, Azkue maipuru dutela.

1. Urkijo, Kanpion eta Azkuek asi-ta, autu bat izan da euskaltzain artean; auxe gai: euskerak izan ote dituen edo ez erderak ainbat aldakuntza. Luze ta ederki itz egin da onetzaz ta bakoitza bere iritxian gelditu da.

2. Azkue jaunak bere *Morfología* irakuñi du.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Joñaila'ren 24'an.

Euskaltzain abek bildu dira: Azkue, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Landeñetxe, Intza, Alfube, Olabide ta Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Azkue jaunak adierazten du, Lekuona urgazleari Gazteizera idatzi zaiola, orain apaiz-gai artean iratsi dan *Kardaberaz* deritzan baltzua, zer dan ta zer elburu dakañen jakin bidez. Urgazle jaun onek ordea ez du ezer erantzun. Oregatik Euskaltzaindiak ezin lezake ofetzaz ezer erabaki.

2. On litzakela dio Azkue berak, Napañoako *Euskal-adizkideak*-i idaztea esanik gerturik egon dituzela oraingo Agintariak ultzen diran garairako. Orduan baltzu onek Euskaltzaindiak ainbat edo geyago egin lezake euskeraren alde.

3. Aita Intzak dio gogo aundiz ikusi duela Iruñako *Pensamiento* ta *Voz*-ek euskeraz oraindik ere idatzi nai dutela, Napañoan euskera dakitenak dirauten artean. Aita Intzak dionez, Euskaltzaindiak, laguntza ezaririk, arlo ortan sartu bear lukela.

4. Gañera adierazten du Aita Intzak berak Baleztena ta Usetxi aldun jaunai beren iritxia eskatu bear zaiela, euskal-egunak beriro Napañoan egitekotan, edo bestela Euskaltzaindi berak idazki bat zuzendu